

# Kant eta Mendelssohn: arrazoimena ezbaian

Joxe Azurmendi  
EHUko irakaslea

Arrazoimenak bere buruari ezin erantzun dizkion galderak behin eta berriro jartzea eta jartzeari ezin uztea, arazo etengabea da Kanten obra osoan, prekritikotik kritikora eta hilostekora. Entseiatu izan dituen paradoxaren azalpide ezberdinen artean, agian argitsuena problema hori orientazio-arazo gisa planteatu duena da: espazioan fisikoki orientatzen jakiteko lehen erreferentzia norbere gorputzekotasuna den bezala, espekulazioan bere "beharrak" ditu arrazoimenak metafisikoki orientatzeko funtsezko erreferentzia eta irizpide. Hau da, espekulazioan esperientziak ezin gidatu duen arrazoimena, bere beharrak egin lezake. Beharra, adiera honetan (*Bedürfniss der Vernunft*), arrazoimenaren fedearekin berdintzen da, zeinak ez duen ordea zerikusirik arrazoizko fedearekin (*vernünftiger Glaube* vs. *Vernunftglaube*), gaztelaniaz ohizko itzulpenak nahaski pentsarazten duenaren aurka.

The subject of reason, pursued by questions which it can not solve, is spreaded all over the work of Kant; and this is, precisely, Kant's most confronted point with the Berliner Illustration, particularly with Mendelssohn. With no relation with experience, reason needs a guide for speculation, for which (historical) Revelation can not serve. While for Kant, the only guide for reason is its own internal necessity (*Bedürfniss der Vernunft*), for Mendelssohn (after a late recognition of reason's perplexity), this roll is assumed by the common sense. From both positionings derives an important difference, which, in fact, is an opposition for Kant, between reasonable faith and faith of reason (*vernünftiger Glaube* vs. *Vernunftglaube*). This difference is often confused within texts and translations in latin languages. In the necessity for reason, theoretical reason and practical reason go linked.

Arrazoimenak, pentsamenduan argia, gida eta epailea bera izan ordez, edo izateko, biderakusleren baten edo auzitegi baten eta epailearen beharra izateak, paradoxa badirudi ere, historia luzeko arazoa izan da Mendelssohn eta Kanten arteko harremanetan. Behar horren aitortza garbi batera Mendelssohn heldu zen, lehen aldiz 1785ean h.d. Berlingo Ilustrazioa, Panteismoaren Polemikako *Morgens-tunden* izeneko saioetan. Auzi hori hogeita bi urte lehenagoko Zientzi Akademiaren sariketan (1763) funtsean planteatuta zegoen halere eta hala ulertu zuen bere *Preisschrift*-ean Kantek:

Ihardukizuna da –honela adierazten zuen deialdiak– ea egia metafisikoez orokorki, eta bereziki Teologia Naturaleko eta moraleko printzipioek egia geometrikoen proba berdinek ametitzen duten eta, ezezkoa suposatuz, haien ziurtasunaren izaera nolakoa den, zenbateraino hel daitekeen haietan ziurtasun eta bera aski ote den erabateko ustea lortzeko.

Gai honekin Alemanian ordurako arrunt zabalduak ziren kezkek mahai gaineratzen zituen Akademiak. Baina, ezagunki, gaiaren bi erantzun baino gehiago izanik, bi trataera guztiz ezberdinekin, saria Mendelssohnek irabazi zuen orduan, Kantek ohorezko aipamen batekin konformatu behar izan zuelarik.

Zalantza gabe era askotakoak ziren paradigma kartesiano-leibnizianoa, Alemanian wolffianismoan gorpuztuta, kolokarazteko arrazoiak, enpirismoaren eraginak zientifikoaren artean indar hartzetik pietismoaren erreakziora elizgiro ebangelikoan. Baina Kanten bilakaeran garrantzizkoa batez ere razionalismoaren barruan Crusiusek sortutako atezua izango da lehen

printzipioen artean, azken finean ez baitu beste irtenbiderik asmatu ahal izango, arrazoimenaren kontzeptuaren errotiko iraultetarena ezik. Kantek behin eta berriro aitortu dio bere zorra eta gorazarrea Crusiusi aipatu “*Untersuchung über die Deutlichkeit der Grundsätze der natürlichen Theologie und der Moral*” idazki horretan. Oker handi gabe, Crusiusek Kanti metafisika berria ez bada, zahar wolffianoaren ezintasuna ikustarazi diola esan liteke, krisi larri batean amilduz. Hume adina, derizkio Heimsoethen, iratzartu du Crusiusek Kant bere lozorro dogmatikotik.

Wolffianismoa monismoa da, bi printzipio leibniziano goren bat bakar-rera bildu dituen geroz, haren baitan kontraesan printzipioaren eta arrazoi askiaren printzipioaren artean zegoen muga epistemiko sotila ezabatuz. Logikan, matematikan eta metafisikan Leibnizentzat kontraesan printzipioa, nahi bada, arrazoi askiaren printzipioa da, edo haren berdina, printzipio hark gobernatzen baititu zientziok; arrazoi askiaren printzipioak, aldiz, adiera espezifikoa, zientzia “historikoak” gobernatzen ditu (fisika, etab.), egia/errealitate kontingenteen unibertsoa alegia. Formalismo wolffianoak diferentzia hori metodo batean eta sistema silogistikoa bakarraren uniformitatean urtuz bukatu du, dena azken printzipio bakar batetik esekiz. Ondokoa idatzi du Cassirerrek:

Badirudi razionalismoaren helmuga, gertarizko egien printzipioa, oro har pentsamenduaren printzipio eratzailetako gorenetik deduzitzen denean bakarrik lortzen dela. Arrazoi askiaren printzipioa, zinez egia razional eta beharrezko bezala berma eta kredita dadin, printzipio honen suntsipenak kontraesana barnebilduko lukeela erakutsi beharra dago. Eta, egin ere,

Wolffek egin du proba hori errigore silogistiko guztiarekin burutzeko ahalegina.

Ezagutza ororen printzipio goren bakarra dago eta haren menpe daude beste guztiak.

Crusiussek printzipio formal absolutu baten bakartasunari uko egin dio, puntu honetan Kant honakoa darraiola: Crusiusen arabera ezagutzaren printzipio oinarritzaileak hainbat dira, desberdinak, bakoitza beregaina eta bata bestera bihurtezinak, elkarren osagarri eta laguntzaileak baizik. Kontraesan printzipioa, formal edo logikoki egia ororen oinarri lehena eta unibertsalena izan arren, ezagutzaren alderdi formal edo hipotetiko hutsera mugatzen da: identitate-judizio soiletatik harantzago jauzteko printzipio materialak behar dira propio. (Kanten formulazioan: existentzia ez da predikatua, subjektutik/esentziatik ez dela existentzia deduzitzen). Printzipio (material) gorenon egitekoa, existentziari buruzkoa alegia, ez posibilitateari, funtzio edukien arautzailea izango litzateke ezagutzan, era honetan, bitarteko posizio bat okupatuz bateko identitate eta kontraesan printzipio formal hutsen eta besteko zientzietan judizio enpirikoak artezten dituzten arau metodologiko edo praktikoen artean. Ondorioak ebidenteak dira ontologiarako, agerian geratzen da errealtatearen ezagutza beti printzipio eduki extralogikodunetan menpe dagoela, h.d., errealtatearen edozein ezagutzak printzipio a priorizko batzuk suposatzen dituela, beharrezko eta unibertsalak, eta halere informal soilak. Korapilo gordianoa, printzipio formal eta materialen artean, edo materialen beren artean, inoiz gatazka sortuz gero, korapilatzen zaigu. Printzipio batzuek, hala kontraesanarenak, ez

dute murriztapenik ametitzen; printzipio materialek salbuespenak dituzte: hots, printzipio material edo sintetikoen balio-barrutia mugatua da eta haien balio-moldea natura disziplinarrekoa; printzipio formalen errigorea geometrikoa da eta haien esparrua mugagabea. Ezagutzaren printzipio materialok, edukiaren eratzailak, arrazoimenaren esentziakoak dira, baina arrazoimen finituaren esentziakoak (kontraesanaren printzipio goren ez bezala) eta, beraz, haiekin zerbait egokitzen ez bada ez da horregatik derrigorrez irrazionala edo ezinezkoa kontsideratu behar. Printzipioen arteko kalapiten (edo auzi "dialektikoen", adiera kantianoan) artean, espazioaren mugatutasuna edo mugagabetasuna bezalakoetan esaterako, biak berdin ulerkaitzak baitira arrazoimen finitorentzat, arazorik bihurriena askatasunarena da zalantza gabe, itxura guztiz adostezina arrazoi askiaren printzipioaren edo kausalitate legearen unibertsaltasunarekin. Antzeko liskarrak geroz eta ugariagoak dira printzipio desberdinen artean, moralaren edo erlijiozko doktrinen garapide razional bat enseiatzen den orduko. Hortaz, hona korapiloa: zein printzipio edo irizpideren arabera behar du gidatu arrazoimenak, arrazoimenaren beraren esentziako printzipioen gatazka kasuan? Era honetan Crusiussek, Cassirerrek ohartarazi legez, eskolastika razionalistaren ertz-ertzerraino ekarri gaitu, filosofia kritikorantz eramango gaituen planteamendua plazaratuz.

1763an, kurioa da, ordurako metafisikak saihestu guztietatik itoginak erakutsita ere, ilustrazioaren fedea arrazoimenean oraindik osoa da Berlinen, Zientzien Akademiaren lehen Saria Mendelssohni emateak agerian jartzen duenez. Filosofiaren historia

haren krisi etengabearen historia da. Ordea Descartesek eta Wolffek, erantzun dio Mendelssohnek sarigaiari, metafisika oinarri finko eta azkenbetikoen gainean suntsiesizinki eraiki dute Aro Modernoan, geometriaren gotortasun berdinarekin, filosofia beti zanbulukatu duten ezbaiei amaiera emanez. Egia da zalantzak eta mesfidantzak dirauela jendearengan, baina ez egia metafisikoak berez matematikoak baino ziurtasun (*Gewißheit*) gutxiagoak direlako, filosofian ohitugabeentzat haien ulergarritasuna edo argitasuna txikiagoa delako baizik (*Faßlichkeit*), egiaren ebidentziarako biak berdin beharrezkoak baitira.

Metafisika tradizionalen ez, baina Kanten konfidantza arrazoimen tradizionalen, metafisika suntsiezin bat jasotzeko, funtsean berdina da lehiaketako bere idazkian. Krisiaren guztiz ohartun da nolabait: etika razional baterako eta metafisikarako (bien problema batera jartzen baita) ez deritzo egokia metodo kartesiano-wolffianoari, newtonianoari baizik. Baina egokitasun hau erakutsita edo aprobetxatuta baino gehiago, aldarrikatua bakarrik dago Kanten saioan. Pasartea sonatua da eta zilegi izango dugu beste behin errepikatzea, nahiz eta azaleko tonuaren solemnari dago-kiona ez izan hain zuzen ekarpen teoriko argi apartekoa barnean gero:

Metafisikako metodo jatorrak, funtsean, naturaren zientziarako Newtonnek sartu duenarekin eta hor hain emaitza oparoak eman dituenarekin bat egiten du. Ikerketan, diosku Newtonek, esperientzia ziurren bitartez jokatu behar da eta beti geometriaren laguntzarekin, noski, fenomeno batzuek naturan zeintzuk arauen arabera diharduten bila ibiliz. Gorpuzkietan beretan horren oinarria berehalaxe idorotzen ez bada ere, ziur egon gintezke, ihardun-

-lege haren arabera dihardutela halere eta, naturako joan-etorri konplexuak argitu nahi baditugu, ez dugu horretarako beste biderik edukiko, egiaz arau ongi kreditatu haietan nola dauden barnatuta garbi erakustea baino. Berdin-berdin jazoten da metafisikan: edozein kualitate orokorraren kontzeptuan ziurtasunez bilduta dauden ezaugarriak iker itzazue barneko esperientzia ziur baten bitartez, hots, kontzientzia zuzen eta nabari baten bitartez, eta, gauza baten esentzia osoa berehalaxe ezagutu izango ez baduzue ere, hartaz baliatu ahal izango duzue ziurkienik, gauzan barnatuta dagoen asko ondorioztatu ahal izateko... (AK II, 286).

Irakurri edo entzun eta ez badituzu ulertu hitzok, zorionez errua kasu honetan ez da euskararena, Kantena baino, asmo garbi bat baitzeukan, baina ideia oso ilunekin oraindik, arinkarinka testu hori parrastatu zuenean. Arrazoi guztiarekin, halere, momentu erabakigarritzat hartu ohi da une hori Kanten eboluzioan. Zentzu historiko sakonago batetik, beharbada zilegi genuke filosofiaren historia modernoan erabakigarritzat jotzea, arrazoimenaren kontzeptu-iraulketa bat, razionalitate-paradigma aldaketa bat alegia, iragartzen duela ikusita. Gaurko filosofian guk daukagun antzeko kinka batean paratuko gintuzke orduan Kantek, non arrazoimenak bere buruaren bila hasi beharra baitu berriro.

Arrazoimenari honezkero epaile-egitekorik inon geratzen ote zaion izpirituaren munduan (zientziaren teorian, etikan, etab.) edo nola kunplitu ahal izango lukeen halako kargurik, agian horixe da problema gaurregun filosofian, hizkuntzazko egitamuen argiketarik eta ezagutzaren teoria ebolutibotik soziologia edo psikoanalisiraino denak haren katibutza-forma berdinak ebidentzian jartzen dizkigu-

nean. Modernitatearen azkenaz mintzo ohi gara horregatik, bere garaian Modernitatea ezagutarazi duena, arrazoimenaren epaile absolutuaren zeregina izan baita: lehen periploan beste guztiaren balioaren ebazle, razionalismo kartesianoan, eta bere buruaren muga eta ahalmenarena gero, bigarren nabigazioan, filosofia kritikoarekin.

Filosofia alemaniarrean arrazoimen modernoaren krisiak, edo arrazoimenaren ahalmenekiko auzi handiak, Panteismoaren Polemika zela-eta egin zuen publikoki eztanda, Kantek *Arrazoimen hutsaren kritika* agertu eta berehala. Polemika honetan F. Jacobik, Mendelssohnen aurka, filosofia razional huts batek, Spinozarena bezalakoak, nahitaez ateismora daramala, hots, arrazoimena ez dela gauza Jainkoari buruz ezer argitzeko, defendatzen zuen. Tesi honek Jacobirentzat arrazoimenaren ezaskitasunaren adiera zuen, fedezko osagarriaren beharrena hortakoz. Polemika horretan guztian garrantzi bizia izan duen Spinozaren ateismoaren edo panteismoaren auzia aparte, kontua da, guretzat, arrazoimena bere buruarekin gatazkan ageri zela Jainkoari buruz: Jainkoari baitestea irrazionala zen Jacobiren arabera; ebidentzia matematiko bati baitestea bezain razionalki saihestezina Mendelssohnentzat. Nolanahi ere, Jacobiren posizioa soil egoteak, hau da, Jainkoari razionalki uko egin beharra zeukala aitortzen zuen razionalismo bat egoteak, gutxien-gutxienez "arrazoimen erratuaren" arazoa jartzen zion Mendelssohnen filosofia ilustratu arrazoimenean osoki fidatuari. Ilustrazio berlandarrarentzat arrazoimen erratuaren posibilitateak problema paradoxazko arras berria, planteatzen zuen. *Morgenstunden* saioretan (1785) Mendelssohnek bere esplikazio-modua entseiatu du, baina

erantzun definitibo bat, beste baterako agindua, eman gabe geratu da autorearen heriotzagatik polemikaren erdian bat-batean. Mendelssohn hil eta gero erabaki du Kantek hain zuzen polemikan interbenitzea, bere buruarekin borrokan dagoen arrazoimenaz filosofia kritikoaren arabera ebazpidea emateko eta bide batez adiskide hilaren (eta razionalismoaren) katramila filosofikoari askabidea apuntatzeko.

Artez erreparatu du Kantek arrazoimenaren gidaren kontzeptua, edo halako baten behararen aitortza, Mendelssohnen azken-azken idazkietan bakarrik aurkitzen dela eta orduan behar bezalako garapenik gabe. Izan ere, gida baten premia onartzen bada arrazoimenarentzat, ala haren kanpoan aurkitzen da gida edo "errebelazio" hori eta arrazoimena hari subordinatua geratzen da (Lessingen erara), ala haren baitan aurkitzen da eta orduan arrazoimena gidatzen duen barne-lege edo arau moduko bat egon behar du. Zirt edo zart hori behiala Kant bera krisi desesperagarrian amildu zuena da *Izpiritu ikusle baten ametsak*, alegia itzulpen espainolak gogo gutxiarekin itzultzen duen *Unwille* handi batekin idatzitako idazki zakararren garaian (1766). Liburuxka hau, «metafisika, zeinetan maitemindua egoteko baitaukat patua» esaten bada ere bertan, jesukristoren jipoi bat da metafisika historiko guztiarentzat eta era txarrekoa gainera, sarkasmoz betea. «Metafisikaren tximeleta-hegoez» hitz egiten da mesprezuz; "itsutasun metafisikoaz", Juno jainkosak Tiresiari misterio ezkutuen profeta izan zedin emandakoarekin alderatuz. Metodo faltsu batez baliatzeaz salatzen da metafisika, are metodo faltsua bera faltsutzeaz, misteriozko iturburu a prioriko batzuetatik abiatuz «hasi ez dakigu nondik eta ez dakigu nora iris-

teko». Ordura arte izandakoari Kantek hemen metafisikaren kontzeptu berri bat kontrajarri dio, "arrazoimenaren mugen zientzia" izatekoa (*eine Wissenschaft von den Grenzen der Vernunft*). Kontzeptu hau, beraz, 1766an ageri da jada Kanten obran.

Tenore honetan Kantek antsiaz eta konfidantzaz beterik idatzi dio Mendelssohni lankidetzaz eskatuz metafisika razionalista tradizionala gainditzeko proiektuan (1776-04-08ko gutuna). Baina badirudi Mendelssohnek ez duela somatu razionalismo ilustratuaren porrota, gutxienez Panteismoaren Polemikak harrapatu duen arte, agian ezta orduan ere oso garbi. Arrazoimen galdu eta gida-beharraren arazoa modu alegoriko honetan adierazi du orduan berak: mendizale-multzo bat Alpeetan gora doa aurretik bi gida dituela, bata mutila, gazte gihartsu, zainart, ez txit buruargia; neska mehar bat bestea, luxe, barnebil, serio, ameskari-muturra (*von schwärmerischer Physiognomie*), fantasioski jantzita eta bi hegaltxo antzeko zerbaitekin kokotean. Turistek beren gidei jarraitzen diete bidegurutze bateraino, hemen mutilak deblauki eskuineko bidetik jotzen baitu, eta neskak ezkerrekotik, mendizaleak ahoa bete hortz utziz nondik segitu ez dakitela. Horretan matrona bat agertzen zaie, adinean zahartutxoa, ibilera pausatuan haienganantz datorrela. «Etzaitzte kikiildu —esan die damak— ez duzue luzaro pasako gida gabe. Bide-erakusletako eman zaizkizuen gidei *Gemeinsinn* eta *Beschauung* deritze (*Sensus communis* eta *contemplatio* alegia: morrosko enpirista mardoa eta neskafin platoniko espekulatiboa). Batzuetan elkarrengandik urrundu egiten dira, huskeriengatik gehienetan. Baina bidaztiak egonarritsu aski badira bidegurutzean itxaroten geratzeko, ez

batari ez besteari jarraitu gabe, orduan laster itzuli ohi dira biak, desadostasunaren puntuan ebazpena niri utziz». «Eta zuk nola deritzozu, gatazketan epaitzea dagokizun horrek?», galdeetzen du bidelagun batek. «Lurrean arrazoimena deritzot» (*Vernunft*), ihardetsi du andreak, «zeruan...». Baina hemen ez zaigu interesatzen ipuintxoaren jarraipena.

Gogoratzen duzue, *Arrazoimen hutsaren kritika*-ren lehen argitalpeneko hitzaurrean, Kantek, laburbilduma oso plastikoa, nolakoa marraztu duen gizadiaren historia intelektuala: dogmatismoaren eta eszeptizismoaren eten ezinezko gatazkaren alferrikako historia omen da arrazoimenaren edo filosofiaren historia guztia. Gatazka amaitezin hori amaitu eta filosofiari —hots, arrazoimenari— bide ziur bat betiko irekitzea da *Kritika*-ren xedea hain zuzen. Horretarako arrazoimenak berriro epaile-aulkian eseri eta kritikoki —*krinein* grekoaren adieran noski— desadostasunean ebazle aritu beharra dauka. Puntu honetaraino, krisiaren edo nahasketaren aitortzaraino eta pentsamenduan arrazoimenak epaile gisa berriro jokatu beharra ezagutzearaino, bat datoz razionalismo ilustratua eta Kant. Baina honainoxe bakarrik: razionalismoak auzian arrazoimena bera zegoela, hau da, tribunalaren aurrean salatua ere arrazoimenak berak izan behar zuela, ez baitu ikusi nahi izan. Beharbada Kantek guri ere irakatsi nahi diguna hori da: arrazoimenaren krisian beste epailerik, hots, gidarik, ez dagoela arrazoimena bera baino. Bera bakarrik izan daiteke, epaitua bada, epailea ere. Hau izan da Kanten jarraia Panteismoaren Polemikan. Baina: zer da arrazoimena? arrazoizkoa?

Legea non aurkitu da arazoa, arau edo gida bezala arrazoimenari balioko

diona, esperientziarik ez dagoen eremuetan kontrol-harritarako, errigorez pentsatu edo espekulatu ahal izateko, ez burubero fantasiatua (*schwärmen*). Alegia, Kantek, inongo nahasketarik gabe, *erkennen*, *denken* eta *schwärmen* berezten ditu. Metafisika (filosofia) tradizionala eldarnioa izan da. Pentsatzea, aldiz, *denken*, edo bilatzen duen metafisika berria, ezagutza zientifikoena bezain errigorezkoa, beharrezkoa, ziurtasun guztizkoa nahi du Kantek, pentsatzearen eta zientifikoki ezagutzearen diferentzia ziurtasunaren moduarekikoa baita, ez maila edo graduarekikoa. Arazoa, orduan, espekulazioan errigorearen eta ziurtasun razionalaren euskarriak aurkitzea izango da.

Biziki bitxia da Kanten bi kontzeptu oinarritzko lehen aldiz polemikako "Was heißt: Sich im Denken orientieren?" saiotoxoan agertzea: arrazoimenaren beharrena eta arrazoimenaren fedearena. Azken honek (*Vernunftglaube*), terminologiari ohartzeko, ez du esan nahi "arrazoizko fedea", nahiz eta gaztelaniaz beti horrela itzulita irakurri ohi dugun batere zentzurik gabe (García Morente, Gómez Caffarena, etab.). Arrazoimenaren fedea ez da arrazoimenak toleratu edo oniritzi ahalezkoa, bere kanpoan, Jainkoagandik edo nonbait etorritiko errebelazioen bati, hari bere naturak berak ezinbestean galdutua baizik, barruan. Arrazoimenaren exigentzia bat da. Arrazoimenaren beharreakin bat egiten du.

Bere ahalmen teorikoa gainditzen dioten buruhaustek erasotako arrazoimenaren motiboa –*KrV*.ko lehen perpaus famatu hori–, arrazoimen premiatuarena, zaharra da Kanten baitan. Itaun horiek jakinmin kaskalek asmatuak badira ("izpiritu ikuslearen" kontuetan legez), abstenitzea izaten da zentzuzkoena. Besterik izango da

itauna bere naturak berak arrazoimenari baitezpada hertsatua badio (arrazoimenaren beharra, *Bedürfnis der Vernunft*), ezingo baitzaio itzuri eta eman egin beharko da erantzunen bat, zuzena ala okerra. Horrela esplikatzeko ei da filosofiaren historiako absurdu asko. Orduan, *ex parte rei* ez egotean judizioen oinarririk eta ez kontrol-posibilitaterik, aipatu beharrak berak balio beharko du arrazoimena erantzun bila espekulazioan gidatzeko eta berak oinarritu beharko du finean erantzunaren balioa ere. Kantismoan gai funtsezko honetan bi momentu bereiz daitezke: 1) oinarriaren (eta, beraz, erantzunaren) sendotasunarena eta 2) orientabide subjektibo honen hautapenaren justifikazioarena. Erantzunaren sendotasuna Kanten baitan arrazoimen praktikokoaren beharretan zimentatzen da, ezaguna denez. Orain ez zaigu interesatuko. Espekulazioan orientatzeko gida hori aitortu beharra, aldiz, espazioan orientatzen asmatzarekin analogian esplikatu du Kantek (AK VIII, 133 ss).

Gogora dezagun piska bat: Newtonentzat espazioa absolutua da; Leibnizentzat gauzen arteko erlaziozkoa; Kantentzat intuizio sentikorren forma a prioriko hutsa. Horrela problema xeble samar bat, hau da, gauza baten orientazioa zeren erreferentziaz definitzeko problema sortzen zaio sistema bakoitzari. Norantz daude unibertsoan gauzak orientatuta? Edo, norantz dago unibertso guztia orientatuta?

Orientatzea, hitzaren adiera propioenean, orientea seinalatzen jakitea da, horizontea zatitu dugun lau eskualdeen artean ekialdea ezagutzea. Eguzkia zeruan ikusi eta, orain eguerdia dela baldin badakit, badakit handik hara hegoa, iparra, ekialdea eta men-

debaldea non tokatzen diren asmatzen ere. Horretarako, alabaina, beharrezkoa dut aurretik neure buruan diferentzia baten sentimentua («das Gefühl eines Unterschiedes an meinem eigenen Subject»), eskuin eta ezkerreko eskuen diferentziarena.

Hasi zirkulu bat deskribatzen eta, hartan objektuetan inolako diferentziarik behar izan gabe, ahalmenik ez banu izango ezkerretik eskuinerako mugimendua alderantzizkotik bereizteko eta era horretan gauzen posizioetan diferentzia bat a priori determinatzeko, ez nuke jakingo mendebaldea horizonteko hegoaren eskuinean ipini beharko nukeen ala ezkerrean ipini eta horrela iparretik eta ekialdetik barrena berriro hegoraino zirkunferentzia burutu. Datu objektibo guztiekin ere zeruan, hortaz, bereizketa-arrazoi subjektibo baten bitartez bakarrik orientatzen naiz halere geografikoki; eta mirari batez izar guztiak egun batean, bestela irudi bera eta bata-bestearekiko posizio bera gordeko balute, bakarrik bestela ekialdekoa zena orain mendebaldeko bilakatu litzatekeela beren orientazioa, ez lioke gizonaren begiak aldakuntza txikiaren erreparatuko hurrengo gau oskarbian, eta astronomoa bera, ikusten duenari bakarrik egingo balio kasu eta ez sentitzen duenari, desorientatu egingo litzateke ezinbestean (Ib., 135; cf. II, 379).

Zeru izar alderantzua argumetua Leibnizek atera zuen Newtonen (hobe, Clarken) aurka, espazioa ez errealitate absolutu legez, baina objektuen arteko erlaziozkotasun bezala ulertu beharraren alde. Funtsean figura inkongruenteen edo ispilatuen arazoa dugu hau (berdinak, baina aldebestekoak: eskubiak bata-bestearekiko edo eskularru biak adibidez). *Prolegomenoak* (1783) lanean argumentu hau bai Newtonen eta bai Leibnizen aurka dakusagu erabilia,

espazioak intuizioaren forma subjektiboa izan behar duelako proba gisa. Baina bitxiro asko Kant argumentu beraz lehenago espazio absolutuaren alde Leibnizen aurka baliatu izan da “Von dem ersten Grunde des Unterschiedes der Gegenden im Raume” artikuluan (1768; AK II, 375 ss). Urte guztietako Kanten gora-beherak espazioaren definizioan ez zaizkigu orain ardura noski, bai ordea haren ohar txoak orientazioaz espazioan. Guregandik kanpo dagoena, zentzuen bitartez gure gorputzarekin harremanean sartzen den heinean ezagutzen dugu. Guk –kontzientziak, esan behar-ko genuke– badaukagu geure gorputzaren hirudimentsiozkotasunaren esperientzia bat eta esperientzia honen arabera eta handik hasita espazioan “eskualdeak” bereizten ditugu: goia eta behea, aurrea eta atzea, eskuina eta ezkerria (nabariki “lekuak” ez direnak). Eskual-deok balio nolabait “absolutua” dute, aldaezina (ez objektuen artean erlaziozkoa). Hartzen badugu folio bat idatzita, idazkiaren arabera goia eta behea, ezkerria eta eskuina, aurrea eta atzea bereizten ditugu. Folioa nolana jiratu eta biratu, bata-bestearekiko erlazioa zatien artean beti berdina da, baina gerta daiteke folioko goia behean tokatzea gure pertzepzioan, gure begien aurrealdekoa atzea izatea, etab. Berezi beharra daukagu, hortaz: a) espazio orokorra, non b) guk eskualdeak markatzen ditugun (iparra, hegoa; goia, behea, etab.), horien determinazioan segitzen ditugun irizpideak subjektibo hutsak baitira, hots, gure gorputzezkotasunaren edo hirudimentsiozkotasunaren esperientziari erlaziozkoak; eta hirugarren, c) lekuak, gauza batzuen eta besteen arteko erlazioen arabera seinalatzen ditugunak, eskualde haien markoetan betiere. Espazio, eskualde eta lekua-



ren hiru kontzeptuak beraz, Kanten terminoetan (*Raum, Gegend, Ort*). Funtsezkoa guretzat, espazio orokor abstraktuaren eta leku partikular konkretuaren bitartekoa egiten duena, orientazioa definitzen duena (lekua-rena edo munduarena), "sentimentu" subjektibo baten arabera bakarrik determinatzen dela (*Gefühl*).

Medio subjektibo hauxe da Kanten arabera espekulazioan orientatzeko ere daukaguna: ez geure gorputzaren sentimentua, baina «das Gefühl des der Vernunft eigenen Bedürfnisses», arrazoimenak berea duen beharraren sentimentua (VIII, 136). Arrazoimenak gidarik behar badu, ez du halakotzat bere gain edo kanpoko instantziarik onartuko, bere baitako beharrak ditu horrek.

Arrazoimena bere beharretan orientatzea, gizakia den subjektu moral eta intelektualaren erabateko autonomia baitestea da, bere buruarekiko arauz-

kotasunaren aitortza egitea gizatasu-nari. Arrazoimenak bere baitan aurkitzen du fundamentua kantismoan. Hein horretan arrazoimena oraindik auziperatu gabeko azken eta lehen subjektua zen apika (geroago honek izan duen zentzuan bederen). Fundamentuaren gaurko eztabaidan, artez kantianoa da zalantza gabe azken oinarria eztabaidaren (arrazoiketaren) autoinplikazio inmanenteetan bilatzea, oinarripenaren esangura logikoan ("transzendentalean", hobe), Apelek eta jarraitzaileek diharduten eran. Kontua subjektu razionalaren eta behar subjektiboen birrazterketa da batetik, Habermasen antzera, arrazoimen edo azken oinarriaren kontzeptu interdisziplinari eta hein batean erlatibo batek, ez ote duen beste hainbeste eskubide, proiektu zinez kantianoa kontsideratua izateko halaber. Ez kantianoa, horrek ere zalantza gabekotsua dirudi, fundamentuaren arazotik "pasatzea" litzateke, batzuetan posmodernismoa deitzen dutena.

## Bibliografia

Altmann, A., (1973): *Moses Mendelssohn. A Biographical Study*, London.

Habermas, J., (1981): *Erkenntnis und Interesse*, Frankfurt.

Kant, I., (1902): *Gesammelte Schriften*, Akademie der Wissenschaften, Berlin.

Mendelssohn, M., (1971): *Gesammelte Schriften. Jubiläumsausgabe*, Berlin-Breslau 1929-1938, Stuttgart.

Oelmueller, W., (1969): *Die unbefriedigte Aufklärung*, Frankfurt.

Schneiders, W., (1974): *Die wahre Aufklärung. Zum Selbstverständnis der deutschen Aufklärung*, Freiburg.

Wolff, H.M., (1963): *Die Weltanschauung der deutschen Aufklärung in geschichtlicher Entwicklung*, Berna.